



JON TXOPITEA ZUGADI, BARRUNDIAKO UDALEKO IDAZKARIA,

ZIURTATZEN DUT: Barrundiako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2019ko abenduaren 20an, **579** Zenbakia duen **Erabakia** hartu zuela, honako hau, hitzez hitz, esaten duena:

"IKUSIRIK: 2019ko Aurrekontu Orokorretan, Barrundiako udalerrian erroladatutako herritarrei euskara ikasketak garatzeagatik beken emakidaren oinarriak onartu ziren. Horiek emateko honako baldintza hauek bete behar ziren: Barrundian erroladuta egotea eta euskara eskoletan ehuneko 75etik gorako asistentzia egiaztatzea edo, hala badagokio, HABE edo gaitasun probak egiaztatzen dituen beste edozein organismo ofizialetan matrikulatuta dagoen ikastaroa gaingitu izana egiaztatzea.

Diruz lagundu beharreko ikasturtea 2018-2019 zegokionari zen.

Oinarri horiek 2019ko urriaren 9. datako (117. zenbakia) Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

KONTUAN HARTUZ: Deialdia arautzen duten oinarrietako 5ak xedatutakoaren arabera, eskaria eta dokumentazioa 2019ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko ziren Barrundiako Udalaren erregistro orokorrean.

GERTUA IZANIK: Alkate-Udalburuak, 2019ko azaroaren 11ko 487. erabakiaren bidez, Jose Ramon Garaizar Berreteaga jaunari, 301,60 €tako beka luzatu zion 2018-2019 ikasturtean euskara ikasketak garatzeagatik.

GERTUA IZANIK: Jose Ramon Garaizar Berreteaga jaunak, HABEren aldetik 377,00 €tako zenbateko dirulaguntza jaso zuen ikasketak horiek aurrera eramateko.

GERTUA IZANIK: Jose Ramon Garaizar Berreteaga jaunak euskara ikasketak garatzeagatik 377,00 €tako matrikula ordaindu zuen. Beraz, 301,60 €tako gainfinantzaketa egon da.

ZERA ERABAKITZEN DUT

LEHENENGOA.- Jose Ramon Garaizar Berreteaga jaunari, 2018-2019 ikasturtean euskara ikasketak garatzeagatik jasotako 301,60 €tako gainfinantzaketa itzul dezan eskatzea.

Itzulketa, erabaki honen jakinarazpena jaso ondorengo egunetik zenbatuta, hilabeteko epean gauzatu beharko da.

BIGARRENA.- Behin aurreneko klausulan zehaztutako ordainketa gauzatzen denean, beraduntza korrituak kitatuko dira.

HIRUGARRENA.- Honako erabaki hau interesdunari jakinaraztea."

Eta hala jasota gera dadin behar diren ondorioetarako honako hau luzatzen dut, onetsi eta zigilitua, Ozaetan 2019ko abenduaren 20an.

O.E.
ALKATEA